

## **Gure umeetan ilko al da euskera? "Sorgiñaren urrea" ipui-liburutik artuta**

*Tierra Vasca*, 126. zk., 1966-12: 7.

Nere aitonak erderaz tutik ez zekian; nere aitak nolabait ikasi bear izandu zuan pixka bat, aurrera aterako ba zan; nik nai ta nai, ez ikasi bear, gure erriko ikastolak erderaz ikasteko jarriak ditugu ta, nere semetxoak, berriz, etxetik kanporako itz-bideetara esnatzen asi diranerako sortu zait kezka: nere semeak, nere aitonaren odoleko ta itzbideko ondorengoak, betiko euskera galduko ote dute?

Konturatzen naiz: ume oien aotan gure izkuntz iturria agortzen ba da gure erriaren zain bat igartuko da. Au izango litzake lau jenerazio barru izkuntz bat, millaka urte ditun izkuntz bat, oso-osorik akatzea. Besteren baten ilketa bat izango litzake au, noski, baiñan.

Ta gure aurrekoak eta gure ondorengoak ez liguteke barkatuko.

Nere kezka ez baita nerea bakarra, ta ezperientzi oietan alkar lagundu bear diogun asmoarekin nator emen nere kezka ta asmo batzuek azaltzera.

### **Bi izkuntz geiegi?**

Lenen, ez daukagu oraingoz beintzat igez egiterik: bi edo iru izkuntzeko aurrak ditugu. Españeraz edo prantzezez, edo bietara ikasi bear dute gure semeak. Ikasteak ez du kalterik. Ni ez naiz ikastearen aurka; neronek lau izkuntz ikasi ditut, eta besteren bat ikasteko itxaropenik ez det galdu: gurea ez ikastea, gurea ostikadatzea, da kaltegarri ta negargarria.

Euskeraren bizia gure aurren eskuetan daukagu; baiñan aurrena gure eskuetan, edo gure biotzetan. Umetan errex ikasten dira izkuntzak baita bi ta iru ere: ta zenbat eta geiago ikasi trebetasun geiago sortzen da. Egi-egitan izkuntz bat ezagutzeko, besteren bat ikasi bear da; alkar konparatzeak gauz asko erakusten dizkigu ta. Bein zartu ezkeron baten dira lanak! Baiñan umeak ez dute berez ikasiko; gure laguntza, zarragoen laguntza, bear dute; gurasoen butu ta biotzen laguntza.

### **Izkuntzaren izamena**

Izkera ez da oñez ibiltzek bezela ikasten.

Alegia, ume bat bakarrik utzi zazu ta beste iñor bere inguruan ibiltzen ez ikusi arren, aurrak berez zutik jarri ta ibiltzen ikasiko dizu; or baidauzka bere ankatxoak lan ori egiteko gertuak eta or baidauka orretarako bear duan indarra.

Baiñan izketan ez du umeak bakarrik ikasiko. Muñak or euki arren, mingaiña or euki arren, lan orretarako buru kemen eta argi guziak or euki arren, umeak ez du itz egiten *ikasiko izketan entzuten* ez ba du. Txina'n jaio edo Euskal Erria'n jaio, umeak ibillera berdiña ekarriko du berez; baiñan bere itz egite bidea ez da berdiña izango: *bakoitzak bere sendikoa, bere sendian entzuten duana ikasiko du*; eta ezer entzuten ez badu, ez du itz egingo.

Orregatik, umeak euskeraz itz egingo ba du, euskeraz itz egiten entzun bear.

Au da gurasoen lengo egin bearra.